



EUSKAL ZINEMAREN IRIZAR SARIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN  
2017



EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN  
2017



# HANDIA

INOR EZ DA ETENGABE HAZTEN

LOREAK en SORTZAILEEN ESKUTIK

IRUSOIN

WORTAKI

KOMALSKI FILMS

AUNDIYA

etb

tve

euskaltel

3



FILM FACTORY

© cortinacortale.com



— EDUKIAK —

Sinopsia	3
Talde teknikoa	4
Talde artistikoa	5
Datu teknikoak	6
Pertsonaiak	7
Zuzendarien memoria	8
Talde teknikoaren filmografia	12
Ekoizpen enpresak	14



## SINOPSISIA

### — MOTZA

Bere anaia Joaquin munduko gizakirik altuena bilakatu dela ohartzen denean, Martinek bere anaia Europan zehar erakustea erabakiko du. Bidaia honek anbizioa, dirua eta ospea ekarriko du eta familiaren patua betirako aldatuko du. Benetako gertakarietan oinarritutako istorio bat.

### — LUZEA

Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin Gipuzkoako bere etxera itzuliko da, eta han, harrituta, bere anaia Joakin ohi baino askoz ere handiagoa dela aurkituko du. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duelakoan, bi anaiek bidaia luze bati ekingo diote, Europan zehar. Bidean, anbizioak, diruak eta ospeak betirako aldatuko dute familiaren patua. Benetako gertakarietan oinarritutako istorio bat.

# TALDE TEKNIKOA

ZUZENDARIAK	AITOR ARREGI ETA JON GARAÑO
GIDOILARIA	ANDONI DE CARLOS, JOSE MARI GOENAGA, AITOR ARREGI ETA JON GARAÑO
EKOIZLE ERAGILEAK	FERNANDO LARRONDO (AUNDIYA FILM, AIE), JOSE MARI GOENAGA (MORIARTI PRODUKZIOAK, S.L.), NEREA RODRÍGUEZ (IRUSOIN S.A.), KOLDO ZUAZUA (KOWALSKI FILMS S.L.)
EKOIZLEAK	XABIER BERZOSA, IÑAKI GOMEZ ETA IÑIGO OBESO
MUSIKA	PASCAL GAIGNE
ARGAZKI ZUZENDARIA	JAVI AGIRRE ERAUSO
EDIZIOA	LAURENT DUFRECHE ETA RAÚL LÓPEZ
ZUZENeko SOINUA	IÑAKI DÍEZ
SOINU DISEINU ETA EDIZIOA	XANTI SALVADOR
ARTE ZUZENDARIA	MIKEL SERRANO
JANTZI DISEINUA	SAIOA LARA
MAKILAJEA ETA ILE-APAINKETA	AINHOA ESKISABEL ETA OLGA CRUZ
ZUZENDARI LAGUNTZAILEAK	TELMO ESNAL ETA AITOR VITORIA
EFEKTU BEREZIAK	DRAMA FX ETA USER T38



# TALDE ARTISTIKOA

MARTIN

JOAQUIN

ARZADUN

ANTONIO

MARIA

JOSEBA USABIAGA

ENEKO SAGARDOY

IÑIGO ARANBURU

RAMON AGIRRE

AIA KRUSE





IRAUPENA	114 MIN.
HIZKUNTZA	EUSKARA, GAZTELERA, FRANTSESA ETA INGELESA
FORMATUA	DCP 4K SCOPE
BANATZAILEA	A CONTRACORRIENTE
ESTREINU DATA	URRIAK 20

## DATU TEKNIKOAK

## PERTSONAIAK

### — JOAQUIN

Miguel Joaquin baserri-giro kontserbadore batean hazten da, familia ugari batean. 20 urterekin, bere gorputza modu etengabe batean haztera eramango duen gaixotasun arraro eta arrisksua pairatuko du. Bere bizitzaren amaieran 2 metro eta 42 zentimetro neurtzera iritsiko da, garai hartan munduko gizakirik altuena bilakatuz. Honen ondorioz, baserritar xume honek, Espainia, Portugal, Frantzia edota Ingalaterrako errege-familiak ezagutuko ditu. Bere bidaian zehar Joaquinek, lehenik bere konplexuei egin beharko die aurre, eta ondoren, bere mitoari. Izan ere, mito hau handitzen doan heinean, Joaquinek gizaki bezala desagertzen ari denaren sentzazioa izango baitu

### — MARTIN

Joaquinek bere anaia Martinekin egingo du hainbat herri eta hiri ezagutzera eramango dituen bidaia. Martin, erraldoia ez bezala, txundituta dago atzerrian ernetzen ari den bitzita estilo moderno jaioberriarekin. Martin eta Joaquin lotura estua duten bi pertsonaia dira, ezin daiteke bata bestea gabe ulertu. Konplizitatea, menpekotasuna, esplotazioa eta dependenzia nahasten dituen erlazio korapilotsua dute.

### — ARZADUN

Joaquini esker diru asko irabazteko aukera paregabea ikusten duen negozio-gizon azkarra da. Bere gaitasunak interes ekonomikoei probetxua ateratzeko erabiltzen ditu, giza-sentimenduetan arreta berezirik jarri gabe. Bi anaiek duten erlazio xeble eta bereziaren lekuko nagusia izango da.

### — ANTONIO

Gaztea zelarik alargundu zen Antonio eta bere familia-ugariaren zama hartu behar izan zuen. Beharbada gertakari hark bere izaera behar baino gehiago garrastu zuen. Gogorra da bere burua epaitzerakoan, baina are zorrotzagoa haren seme alabak gobernatzerako orduan. Hauekin duen erlazioa familiaren mantentze eta baserriaren ustiaketa hutsera mugatzen da. Dena esateko, nahiz eta Eleizegitarren hainbat belaunaldi bertan bizi izan diren, baserriaren jabetza ez da familiarena.

### — MARIA

Maria herriko gazte bat da, bi anaien istorioarekin modu desberdinetan erlazionatuko dena. Joaquinekin eta Martinekin osatutako triangeluaren hirugarren erpina izango da. Triangelu hau, nolnahi ere, anbiguotasunaren trazuekin marrartzuko dute hirurek.





## ZUZENDARIEN MEMORIA

### BENETAZKO GERTAKARIETAN OINARRITUTA

Inor ez da gelditu gabe hazten. Edo agian bai? Gutako ia gehienak nerabezaroan handitzen gara, helduak garenean altuera jakin batean mantentzen gara, eta azkenik (kasu gehienetan behintzat) bizitzaren azken urteetan txikiagotu egiten gara. Hala ere, eta pertsona oso gutxiri gertatzen bazaie ere, kontrako egoera ere eman daiteke: gehiengoak hazteari uzten diogunean, haiek handitzen jarraitzen dute, eta ez diote hazteari uzten bere heriotzaren egunera arte. Hauxe da, hain zuzen ere, akromegalia pairatzen duten pertsona batzuei gertatzen zaiena. Garai hartan arrazoi zehatza ezagutuko ez bazuten ere, litekeena da Miguel Joaquín Eleizegik akromegalia izatea. Gipuzkoako Altzoko herrian 1818 urtean jaio zen eta 20 urterekin

etengabe hazten hasi zen bere bizitzaren azken egunera arte, eta horrela bere garaian existitzen zen pertsonarik altuena izatera iritsi zen. Bere ospea biziki hedatu ostean, Europako hainbat lurraldetan agerraldi desberdinak egin zituen publikoak bere tamaina handia ikus zezan.

Bere heriotzaren ostean (1861ko azaroaren 20an gertatutakoa) hazteari utziko ziola pentsatzea normalena zen, baina ez zen halakorik gertatu. Paradoxikoki, behin lurperatuta, Joaquinek hazten jarraitu zuen, era sinbolikoan bazen ere. Bere abenturak eta figura ahoz-ahoz hedatuz joan ziren, geroz eta handiagoak eta geldiezinak eginez. Ordurako “Altzoko Handia” mito bilakatu baitzen, eta mito batzuk betirako hazten dira.



## MITOAREN EGIA

Nahiz eta bere garaian “Altzoko Handia” pertsonaia ospetsua izan zen, filmerako dokumentazio lanak hasi genituenean zera ikusi genuen: ez zegoela kasik honen gertaerei buruzko informaziorik. Are gehiago, gure sorpresarako ez zegoen berari leporatzen zaizkion pasadizo desberdinen inguruko froga fidagarriak, ez bada ahoz-ahoko transmisio deformatzaileari esker gure egunetarinaino iritsi zaiguna. Bere istorioa denboraren joanean aldatzen joan da, eta batzuk sekula ez zela existitu pentsatzera iritsi dira, euskal mitologiaren beste pertsonaia bat izango balitz bezala. Baina honek ez zuen gure motibazioa ahuldu. Alderantziz, aukera polit bat ikusi genuen situazio horrek eraginda: izan ere, ez al da ba nahasketa hori mito guztiak eraikitzeko erabiltzen den materiala? Guztiz benetazkoak ziren gertakari batzuetaz aritzeaz baino, gure asmoa kontakizun horien atzean izan daitezkeen gaien inguruko gogoeta bat egitea izan zen. Ahalik eta modu zintzoenean, benetazko elementuak fikziozkoekin uztartuz. Oakley Hall idazlearen esanetan “Fikzioaren zeregina ez da gertakari errealak jasotzea, baizik eta egia bilatzea”. Eta horixe bera egiten saiatu gara. Egia horien artean honako hau dago gure ustez: gizakiak bere mito

propioak eraiki eta transmititu behar dituela. “Handia” filmak gizarte orok kondairak sortzeko duten behararen inguruan hausnartu nahi du. Heroiak eraikitzeko joera ukazina du gizakiak, edozein momentutan eta edonon. Oraintxe bertan, munduaren edozein bazterretan, sortzen eta hazten ari dira euren errealitate sozial eta politikoaren ondorio diren mitoak. Miguel Joaquin Eleizegik ez zuen karisma berezirik eta bere bizitzan zehar ez zuen aparteko ezer lortu, baina bere pertsonaren baitan gaurko egunera arte irauten duen mito bat eraiki zen. Arrazoi bakarra: gainontzeko gizakiak baino zentimetro batzuk gehiago neurtzen zituela zen. Hau da, askotan mitoak ez dira sortzen eurek egindako lorpenengatik, baizik eta haiek mitifikatzen dituzten pertsonen beharregatik. Azken finean, istorio honek, zer den erreal eta zer ez den banatzen duen marra ahul horri buruz hitz egiteko aukera ematen digu. Izan ere, mitoak hazten eta hedatzen baitoaz, Joaquinen gorputza bere 43 urteetan zehar hazi zen moduan. Gure filma transmisio katearen azken katebegia baino ez da. Erraldoiaren hazkunde prozesuaren azken zentimetroa.





ETENGABE HAZTEN ARI ZEN GIZONA.  
ETENGABE ALDATZEN ZEN MUNDUA.

Aurretik esan bezala, mitoak errealitate politiko eta sozial zehatz baten emaitza badira, Altzoko Handia XIX.en mendeko emaitza garbia da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Bera eta bere anaia Martin (bidai gehienetan bidelagun izan zuena) mende horren erdi partean bizi izan ziren. Garai horretan, seguraski ordura arte sekula baino era intentsoagoan, erregimen zaharra eta berriaren arteko talka nabarmendu zen; Kontserbadoreak versus Liberalak; Traditionalistak versus Erreformistak; Isabelinoak versus Karlistak.

Aldaketak ez ziren soilik eman alor politiko eta sozialean, teknologikoan ere eman ziren. Adibide bakar bat jartzearen, urte horietan dagerrotipoa jaio zen, eta pixkanaka ilustrazioek argazkiei utzi zieten lekua. Askok pentsatu zuten horren bitartez errealitatea betirako irudikatzen zela eta horren bitartez mundu bat desagertarazten zela: fabulazioarena, mitoek gu guztion irudimenean formaz aldatzeko duten gaitasunarena. Geroago jakingo genuen ideia hau ez dela guztiz horrela, aurrerapen teknologiko

hauek ez baitzuten murrizten gizakiok errealitatea mito bihurtzeko dugun gosea.

Edozein kasutan, garai haietan aldaketak bizkortu egin ziren, nabariagoak bilakatuz. Eta nork irudikatu dezake inork baino hobeto garai hori, etengabe eta bere borondatearen kontra hazten ari den gizaki batek baino? Bere garaiko askori bezala, Eleizegitarrei sistema zaharrean bizitzea egokitu zitzairen, baina bat-batean garai berri baten erronkei aurre egin behar izan zieten. Seguraski egokitzapen prozesu hori gutako edonork egin izan duen bezala egingo zuten beraiek ere: ahal zuten moduan. Bati baino gehiagori ezaguna gertatuko zaio hau dena, “Handia”k islatzen duenak gure gaurko errealitatean ohiartzun ugari baititu.

Egiazki, filmak gai konkretu baten inguruan hausnarketa egin nahiko luke: gizakiak aldeketei nola egiten dion aurre. Errealitate berri horren aurrean, hartzen ditugun erabakien ostean, gure jatorrizko nortasuna mantendu dezakegu? edo behin izan ginaren bertsio desitxuratu batean bilakatzen gara?

## JOAQUIN ETA MARTIN. TXANPONAREN BI AURPEGIAK

Hala ere, eta esandakoak esanda, Joaquin ez da istorio honen protagonista bakarra, bere anaiak Martinek ere protagonismo handia baitu.

Martinek, gerratik bueltatzerakoan, erraldoi batekin egiten du topo. Joaquin aldatu egin da, baina Martin bera ere bai; anaia eta familia osoarekiko duen begirada aldatu egin da jada, eta zentzu batean, erraldoi hori Martinek baztertzen duen guztiaren sinboloa da. Joaquin ispilu distorsionatua bezalako da; bertan, Martinek bere buruari buruz onartzen ez duen guztia ikusten du. Hala ere, eta indar zentripetu bat balitz bezala, Martin erraldoiari kateatuta sentituko da. Nolabait, Joaquinek gerra aurretik bizi zen lekura bultzatzen du Martin, baserrira, betirako atzean utzi nahi duen leku berera, hain zuzen. Anaia bakoitzak era oso desberdinean egiten dio aurre lehen aipatu dugun errealitate aldakor horri. Joaquin pertsona tradizional eta etxekoia da,

dena aldaketarik gabe mantentzea nahi duena; Martinek, berriz, kontrako jarrera du: ausarta eta inkonformista da, eta errealitate bare horretatik ihes egin nahi du. Baina paradoxikoki Joaquin, bere borondatearen kontra bada ere, aldaketa etengabe batean bizi da eta Martinek bere bizitzan aldaketa askoz gehiago nahiko lituzkeen arren, ez mugikortasunaren menpe dago. Bere beso mugiezina, horren sinboloa da. Biek indar kontrajarriak irudikatzen dituzte, baina osagarriak dira aldi berean; “yin eta yang”a balira bezala, bakoitzak bestearen zerbait bat dute bere baitan. Azken finean, ez baitago ezer guztiz purua eta geldoa. Guztia transformatzen ari da. Horregatik, nahiz eta kontrakoak diren, istorioan zehar Martin eta Joaquin bata bestearengandik guk uste baino gertuago daudela ikusiko dugu. Egiari zor, filmaren protagonista ez da ez bat ez bestea. Protagonista, bien artean osatzen duten unitatea da, bi arimaz osaturiko izaki bakarra.



## ZUZENDARIAK

“Handia” Arregi-Garaño tandemak zuzenduriko fikziozko lehendabiziko filma da. Hala ere 15 urte baino gehiago eman dituzte elkarrekin lanean funtzio desberdinak betetzen, beraiek sortutako Moriarti ekoiztetxean. Beraien aurreko filman Jon Garañok zuzendari eta gidoilari funtzioak bete zituen eta Aitor Arregi berriz gidoilari eta ekoizle eragile moduan aritu zen. Film hau mugarria izan zen euskal zinean, Donostiako Zinemaldian lehiatzeko aukeratua izan zen euskaraz filmatutako lehen film luzea izan baitzen. Horrez gain, “Loreak” film onenaren Goya sarirako izendatua izan zen eta 2015 urteko Oscar sarietan Espainia ordezkatzeko aukeratua izan zen.

### — JON GARAÑO DONOSTIA, 1974



Kazetaritza eta Publizitatea ikasi zuen UPV-EHU eta Zinema Saroben eta San Diegon (AEB). Moriarti produkzio-etxearen sortzaile-kideetako bat izan zen 2001ean eta bertan jardun du zuzendari, produktore eta gidoi gile gisa.

Bere film laburrak 100 lehiaketatan baino gehiagotan sarituak izan dira, eta hamabost herrialdetan baino gehiagotan eman dira bere telebistarako dokumentalak.

2010 urtean “80 Egunean” filma zuzendu eta idatzi zuen. Film honek nazioarteko 100 zinemalditan baino gehiagotan parte hartu zuen eta 30 saritik gora lortu zituen. Dena den, egun arte bere filmerik entzutetsuena, 2014 urtean idatzi eta zuzendutako “Loreak” da.

#### FILMOGRAFÍA

- **Renovable** (film laburra). Zuzendaria. 2016
- **Loreak**. Zuzendari eta gidoilaria. 2014
- **El método Julio** (labur dokumentala). Zuzendari eta gidoilaria. 2010
- **80 Egunean**. Zuzendari eta gidoilaria. 2010
- **On the line** (film laburra). Zuzendari eta gidoilaria. 2008

### — AITOR ARREGI OÑATI, 1977



Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu ostean, Aitorrek ere zine ikasketak egin zituen Sarobe Arte Eszeniko Gunean. Jon Garaño bezala, Moriarti produkzio-etxearen sortzaile-kideetako bat izan zen 2001ean. Gidoilari eta zuzendaritza lanetan aritu zen “Sahara Marathon” dokumentalean, “Glup” eta “Cristobal Molon” animazio filmeetan zuzendari eta telebistarako hainbat proiektuetan lan egin du. Horrez gain, film laburretan ere aritu da zuzendari edo

gidoilari funtzioetan, besteak beste “Zarautzen erosi zuen” laburrean, zeina Clermont-Ferrand-eko zinemaldi ospetsuan lehiatzeko hautatua izan zen. Hala ere, Aitorren lanik esanguratsuenak “Lucio” dokumentala (Goya sarietan dokumental onena bezala izendatua izan zena) eta “Loreak” dira. Azken honetan gidoilari eta ekoizle eragile izan zen.

#### FILMOGRAFÍA

- **Loreak**. Gidoilari eta ekoizle eragilea. 2014
- **Zarautzen erosi zuen** (Film laburra). Zuzendari eta gidoilaria. 2014
- **Lucio** (Dokumentala). Zuzendari eta gidoilaria. 2007
- **Glup** (Animazioa). Zuzendaria. 2004
- **Sahara Maratón** (Dokumentala). Zuzendari eta gidoilaria. 2004

# TALDE TEKNIKOAREN FILMOGRAFIAK

## JOSE MARI GOENAGA

GIDOILARIA

### FILMOGRAFÍA

- *Renovable* (Film laburra). Zuzendari eta gidoilaria. 2016
- *Loreak*. Zuzendari eta gidoilaria. 2014
- *80 Egunean*. Zuzendari eta gidoilaria. 2010
- *Lucio* (Dokumentala). Zuzendari eta gidoilaria. 2007
- *Sintonía* (Film laburra). Zuzendari eta gidoilaria. 2005

## ANDONI DE CARLOS

GIDOILARIA

### FILMOGRAFÍA

- *Vuelta al mundo* (Film laburra). Gidoilaria. 2016
- *Piensas*. (Film laburra) Gidoilaria. 2012
- *Qwerty*. (Film laburra) Gidoilaria. 2012
- *Pim, Pam, Pum* (Film laburra). Zuzendari eta gidoilaria. 2008
- *Génesis, en la mente del asesino* (telesaila). Jatorrizko ideia eta gidoilaria. 2007

## JAVI AGIRRE ERAUSO

ARGAZKI ZUZENDARIA

### FILMOGRAFÍA

- *Acantilado*. 2016
- *Amama*. 2015
- *Loreak*. 2014
- *80 Egunean*. 2010
- *Aupa Etxebeste!* 2005

## PASCAL GAIGNE

MUSIKA

### FILMOGRAFÍA

- *El olivo*. 2016
- *Loreak*. 2014
- *80 Egunean*. 2010
- *Azuloscurocasinegro*. 2006
- *El sol del membrillo*. 1992

## RAÚL LÓPEZ

EDIZIOA

### FILMOGRAFÍA

- *Lasa eta Zabala*. 201
- *Loreak*. 2014
- *Urte berri on, amona!* 2011
- *80 Egunean*. 2010
- *Lucio* (Dokumentala). 2007

## LAURENT DUFRECHE

EDIZIOA

### FILMOGRAFÍA

- *Sipo Phantasma*. 2016
- *Amama*. 2015
- *Bertsolari*. 2012
- *5 metros cuadrados*. 2011
- *El cielo gira* (Dokumentala). 2005

## — IRUSOIN

Irusoin 1982an sortu zen fikzioa, dokumentalak eta animazioa barne hartzen dituen zinema-ekoiztetxe gisa. Ekoiztetxeak bi produkzio eta postprodukzio zentro ditu: bata Bilbon, bestea Donostian. Bere produkzioak sarritan izan dira sarituak eta presentzia garrantzitsua izan dute nazioarteko jaialdietan. Azpimarratzekoak dira “*Karramarro Uhartera*”-k irabazitako animazio film onenaren Goya saria eta hainbat izendapen eta presentzia jaialdi askotan, hala nola, Palm Springs, Tokio, Bergamo, Zürich, Siberia, Londres, Miami, Nantes, Cleveland, Chicago, Hanburgo, Reykjavik, e.a. Bere produkzioen artean nabarmentzekoa da “*Loreak*”, nazioartean sekulako ibilbidea egin duen film luzea eta historian lehen aldiz euskaraz errodatu den filma izan delarik Donostiako Zinemaldiaren sail ofizialean lehian. Ekoiztetxeak beste hainbat proiektu ere izan ditu eskuartean: “*Urteberri On, Amona!*” (2011), “*80 Egunean*” (2010), “*¿Y tú quién eres?*” (2007), “*Aupa Etxebeste!*” (2005), “*Dies d’Agost*” (2006) eta dokumentalik onenaren Goya sarirako izendatuak izan ziren “*Lucio*” (2007) eta “*30 Años de Oscuridad*” (2012) dokumentalak.

## — MORIARTI PRODUKZIOAK

Moriarti Produkzioak 2001 urtean sortu zen eta ordutik euskal ekoizpen etxe ugariarekin egin du lan ikus-entzunezko hainbat proiektu garatzen. Era berean, hainbat produkzio ekoiztu dituzte nazioarteko zinemaldi askotan ikusi ahal izan direnak. Moriartiren filmeek, 350 sari baino gehiago lortu dituzte. Produkzioen hauen artean, “*Loreak*” aipatu behar da, kritika eta publiko harrera positiboa izateaz gain, Goya sarietan film onena bezala izendatua izan zena eta Oscar sarietan Espainia ordezkatzeko hautau izan zena. “*80 Egunean*” (2010), “*El Método Arrieta*” (2013), “*Lucio*” (2007), “*The Dragon House*” (2005), “*Sahara Maratón*” (2004) dira Moriartiren beste ekoizpen batzuk. Bestalde, “*Zarautzen erosi zuen*” (2014), “*On the Line*” (2008) edo “*Sintonía*” (2005) bezalako film laburrak ere ekoiztu dituzte.

## — KOWALSKI FILMS

owalski Films Koldo Zuazuak zuzentzen duen Donostiako ekoizpen etxea da. Espainia mailan ohiartzun eta sari ugari jaso dituzten film laburrak ugari ekoiztu ditu, besteak beste, León Siminianiaren “*El Premio*” eta Martin Roseteren “*Voice Over*”, bata zein besteak nazioartean oso sarituak eta Goya sarietarako izendatuak. Hainbat film luze ekoizten ere lagundu du: “*Zipi y Zape y el Club de la Canica*” Oskar Santosek zuzendua, Emilio Martínez Lázaroren “*8 Apellidos Vascos*”, Fernando Francoren “*La Herida*” eta “*Morir*” edo Luiso Berdejoren “*Violet*”, batzuk aipatzearren. Kowalskik profil komertziala duten filmak eta arrisku maila eta autoretza handigoa duten filmak ekoizten ditu, koprodukzio formula jarraituz, nazioarteko produkzioak Euskal Herrira erakartzeko eta bide batez bertako talentua indartzeko asmoz.

# H A N D I A

I N O R E Z D A E T E N G A B E H A Z T E N

**CONTACTO DE PRENSA:**

WAW

Núria Costa: [ncosta@workingatweekend.com](mailto:ncosta@workingatweekend.com)